



2021/2022 denboraldia

22. ZIRKULARRA

OHOREZKO INFANTILEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Ohorezko Infantilen lehiaketa antolatzen du. Bertan parte hartuko duten taldeak, aldeztatik gonbidatuak izango dira Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren foru Aginduaren bitartez.

1. KLUB PARTAIDEAK

1. MULTZOA

- 1 HONDARRIBIA F.E
- 2 MARIÑO C.D.
- 3 REAL UNION CLUB SAD
- 4 TOURING KE
- 5 TRINTXERPE C.D.
- 6 OIARTZUN K.E.
- 7 BETI ONA C.D.
- 8 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 9 KOSTKAS KE

2. MULTZOA

- 1 ZARAUTZ K.E.
- 2 ZUMAIAKO F.T.
- 3 ARRUPE CHAMINADE C.D.
- 4 ANTIGUOKO K.E.
- 5 AÑORGA K.K.E
- 6 INTERNACIONAL C.D.
- 7 LENGOKOAK K.E.
- 8 MARTUTENE K.E.
- 9 VASCONIA C.D.

3. MULTZOA

- 1 BEASAIN S.D.
- 2 LAZKAO K.E.
- 3 ORDIZIA K.E.
- 4 TOLOSA C.F.
- 5 BILLABONA K.E.
- 6 DANENA K.E.
- 7 EUSKALDUNA S.D.
- 8 HERNANI C.D.
- 9 OSTADAR S.K.T.



4. MULTZOA

- 1 ARRASATE C.D.
- 2 ALOÑA MENDI K.E.
- 3 AMAIKAK BAT K.E.
- 4 BERGARA K.E.
- 5 EIBAR S.A.D.
- 6 LAGUN ONAK C.D.
- 7 UROLA K.E.
- 8 REAL SOCIEDAD S.A.D.

2.LEHIAKETA SISTEMA

Ohorezko Infantilen liga txapelketa, aurten soilik eta modu berezi eta iragankorrean, **35 taldek** osatzen dute; hurrengo denboraldian ohiko 32 taldeak izango dira. 35 talde hauek 9 taldeko hiru multzotan eta 8 taldeko multzo batean banatuta daude. Bi fasetan jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulira (18 eta 14 jardunaldiak), eta Euskadiko Futbol Federakundearen Erregelamendu Orokorrean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

A.Txapeldun Fasea:

Multzo bakoitzeko lehen hiru sailkatuek (3x4=12) 6 taldeko bi multzotan banatuta eta bi itzulira jokatu dute fase hau.

Maiatzaren 22an jokatu da finalerdia, partida bakarrera, gurutzatuta (multzo bateko lehena besteko bigarrenaren aurka eta alderantziz), ondoen sailkatu denaren etxean.

Maiatzaren 29an, irabazleek finala jokatu dute eta galtzaileek 3-4 postuak, partida bakarrera eta zelai neutralean. Era horretara, sailkapen ordena bat lortuko da Errendimenduzko Infantil Handi Txapelketan Gipuzkoa ordezkatu duten hiru taldeak erabakitzeko.

B. Gipuzkoako Kopa

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatu dute.

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partiden iraupena 70 minutukoa da, 35 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedena, eta **zazpi aldaketa** egin ahalko dira.



Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalaririk guztiak partidan ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelaira sartzen den azken jokalaria ezingo ditu 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15. minutua baino beranduago. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da.

4. DEIALDIA

Batzar Nagusian heldutako akordioaren arabera, **taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partidan bertan egon beharko du. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

5. JOKALARIAK

2009 eta 2009 urteetan jaiotako jokalaria.

6. LIZENTZIAK

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek bi erakundeen logotipoak izango dituen eskola-lizentzia izango dute, eta federazioan bertan bideratuko dira, lehiaketa hasi aurretik "Kirol lizentziak" sistemaren bidez, azterketa medikua eta mutualitateko alta egiaztatu ondoren.

Talde bakoitzak **gehienez 20 lizentzia** izango ditu. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

7. ORDUTEGIAK

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

8. XEDAPEN OROKORRAK

Izen-ematea:

Izen-ematea Federazioko Intranetetik egingo da.

**Laguntza-estaldura:**

Lehiaketa eskolarra izan arren, **Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean** afiliatuta egon behar da.

Azterketa medikuak:

Lizentzia tramitatu aurretik, **kirolariak futboleko aritzeko gaitasuna duela egiaztatu beharko da.**

9. OHOREZKO INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

10. PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.

11. 2022-2023 DENBORALDIKO TALDEEN OSAKETA

2022-23 denboraldirako Ohorezko Infantilen kategoria 32 taldek osatuko dute, 2021-22 denboraldiko Infantil Txiki kategorian ondoen sailkatutako 31 taldek eta Real Sociedad taldeak osatuta.

12. DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAN zehaztutakoarekin bat etorriz, diziplina-eskubidea honela gauzatzen da:

- a) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketaz arduratzen den kirol-federazioko



diziplina-batzordeari.

b) Bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari; bere erabakiak administrazio-bidearekin amaituko du, eta aurkako errekurtoa aurkeztu ahal izango da, aplikatu beharreko jurisdikzio-arauen arabera.

13.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe

Idazkari Nagusia-Secretario General